

# BERTSO BERRIAK

ERNANIKO AGUSTIN DONEAREN LEKAIME ETXEARI

*Sebastian Salaberria Yarzabal*

## BERTSO PAPERAK

- 1 Berriro ere ekin nai diot bertso idazte lanari lenengo agur zaindari degun gure San Juan Bautistari eta ondoren, besarkada bat erri agintarieri esker beroak jaiak prestatzen jardun diren gizoneri pesta giroa opa dizutet Ernaniar guztiori.
- 2 Euzkadi xaarrak berekin dauzka makiñabat erri jator langabezian daude geienak ortik gauz onik ez dator baiña borondatez aberatsak beti ditugu emankor nerekin ondo portatzen dira ta deneri diet nik zor Ernani maite gaur zuregana bertso batzuekin nator.
- 3 Edertasunez jantzirik zaude biotzeko Euskal erri zuaizti bikain paregabeak zelai, soro ta baserri mendi aldeko ermitatxoak txori guztien pozgarri begira nago gaur Ernani mojen Monumentu orri bertsoen bidez eman nai nuke Eliz urtetsuan berri.
- 4 Ni ere ez naiz gaztea baina badakit zaarrago dala lareun da berrogeita hamar urte Eliz au zutitu zala Ereñozu tar on Juan Martinez etzan izango makala bi alabatxo moja sartzeko jaso zuan bereala lan aberatsa egin zuan da Jaunak berekin dezala.
- 5 Milla ta bosteun urte ingurun etzuan gutxi sufritu pake pakean zegon Eliza etsai gaiztoak txikitu gudate latzak eta suteak ere ezagutu ditu Frantsez maltzurak kixkali zuten ta auts eginda gelditu baiña Jainkoak alaxe nai ta berriro ere zutitu.
- 6 Bere barrua apaintzen dute bertan dauden imajiñak zaindari degun San Agustiñek Jesus ta Ama Birjiñak sarreran arku gaillur txorrotzak borobildurik iskiñak begien bixtan ortxe dauzkagu dotore asko egiñak esku oneko gizonak ziran garai artako argiñak.
- 7 Eliz ortara meza entzutera joaten naizen bakoitzean zeruan nagola pentsatzen det bere barrura sartzean mojatxoak or jarduten dira kantuan da otoitzean abesti goxo zoragarriak ain gertu nabaitutzean alaitasunik estitsuen banatzen da biotzean.
- 8 Amaitu nai det nere lantxo au ez baidet geiago betik alegiñean ari naiz baiña ezin naiz irten lanpetik emen jardun naiz mojatxo auen naia egiteagatik gauza guztien Jaun da Jabeak lagun deigula zerutik San Agustinen konbentu onek iraun dezan beti zutik.